

# Eskolak sei urte bitarteko umeentzat

Gure aurtzaroan ez zen ia pentsatu ere egiten ain txikiak eskolara bidaltzerik ere. Bidaltzen baziran ere, bidez zerbait ikasi egingo zutela eta, etxean pakea emateagatik igorri ohi ziran.

Eskola barruan, berriz, geldí eta txintxo egotea eta ahal zenik eta azkarren irakurtzen eta idazten ikastea, zituen aurren aurreneko lanak.

Jaio baíno, gutxienez 20 urte lehenagotik asi behar omen du aurrak ezitzen, esan du norbaitek. Jakína gurasoen esku dago asko, aurraren izatera. Nolako gurasoa, alako aurr. Guraso-lanak ezin ondo egin, ordea, umetan eta gaztetan gertutu ez denak.

Ez dirudi, baíno, garrantzi aundikeak dira gizakiaren bizitzan aurreneko sei urteak. Eta ajola aundikoa, urte oietan, orobat eskola. Ez irakurtzen eta idazten ikastea, alegia, burua argitzea, irudimena bizkortzea, norik bere ikuntza lantzeko, lagun artera ireritzeko, norbere buruaren jabe izaten asteko eta abarretarako baizik.

Millakak dira urte oietako umeak Gipuzkoan. Oietatik asko kalean edo etxe zuloan. Gurasoen ezjakintasunagatik edo modurik ezagatik batzutan. Lekurik ezagatik askotan.

Arazo ori zuzendu nahirik datoz orrenbeste "parbulario" Gipuzkoara. "Etxeko ikuntzan" eskolatuko dira aurrak. Poliki-poliki pasako dira eskeratik erderara eusalduna" Berdin eraldunak ere eskerara. Sei urterako bi ikuntzak ikasirik egotea nahí hitzake.

Baíno gauza bat da legea, gauza bat asmoa eta bestea ala zitea ala gertatzea. Non daude bi ikuntzak dakizkiten irakasleak? Non urte oietako umeentzat gerturikakoak?

Ekin zaio ikastetxeak jasotzeari baíno pentsatu al da legeak eskatzen duen ori nola bete? Titulodunak ez badago ez al litzake edo euskaldun neska argi batzuk ortarako gertutzea eta gauzaztea ikastaro batzuen bidez? Aski al da irakasle tituloaren jabe izatea? Zer egin behar du eskola batean umearen ikuntzarik ez dakian irakasle batek? Zail da pedagogiari eta sikologiari parra gehiago egitea. Ez al da titulo guztiak eskuan ditutena baíno ohea molde piska bat, gertura apur bat eta umearen ikuntza dituen irakasle jator bat? Gogoan edukiko al dute, noski, gure erri-etxeakoa jaunak legeak eskatzen duen, bi ikuntzarako irakaskintza orri, erantzuterakoan!

Baíno au oso erraz egin dezakena Eliza da. Elizak ugaldu dezake errazen, era ontako ikastetxeak. Badu legearen esku-bidea, baditu lekuak, badu eskarmentua.

Ez gera buruz mintzatzen ari. Or dago andereko laguntzaileen lan bikaíno. Obe tituloaren jabe balira. Baíno badute titulodun askok ez dutena: gogoá, moldeá, iraunpena, euskera, kezka...

Ez da itus-itusan artuko genduekan bide berri bat. Ezaguna dugu lehendik ere. Uta ona eta ugaria eman du bere akats eta guzti ere. Beren buruen jabe izateko bideak erraztu zaizkie gazte batzuei. Euskal Erriari laguntzeko egokiera izan dute kultura mailan, Bere aurrak euskal giroan ezitzeko era Euskal Erriak.

Orregatik dei egiten diogu berriro Elizari. Gogoan eduki dezala Euskal Erriko ume oien etorkizuna, esaten diogu. Izan dedilla ikastolentzat lekua praille eta mojen ikastetxeetan. Zabal-tzen joan ditezela parroki-etxeak.

# ANDOLIN EGUZKITZARI ERANTZUNEZ

Agur lankide hori:

Oker ez banago, behin bakarrik izan diat hirekin buruz buru mintzatzeko aukera: Zuberoko hain zuzen. Agian oroitzen haiz. Handik aste batzutarra Arestik, oso adiskide antzera eta onez-onean, «munstro»-tzat salatu hinduzen. Zertan hi «munstro»? Gure hizkuntzaren jabeakuntza azkarrean: hilabete batzutan, azaldu zenez, euskara ederki menderatutik bait hedukan. Ni neu ere harrituta zut nindan; eta euskaltzaleen beldur berrian etorkizun diraditsua somatu este izan nian higan. Hala biz!

Zuberoko ikusi genian beraz elkar lehenengo aldiz. Eta, geroago azalduko denez, zuberotar giroak bilduko gaitik biok berriro.

Z. Argia-ren Otsailaren 13-ko «Hire lekukadak irakurri dizkit. Es-likaldekerian» erori omen nauk. Beste hitz batez esateko, «super-giputz» horietako bat bihurtu nauk, hire uestez; eta horregatik proposatu diat proposatu dudán bidea. Hik, berriz, «bakar-bakarrik euskalduntzat hartzen duk heure burua».

Hire irizpide horiek benetan poztu nauzke. Eta, sinistuta ekin, ezin zitakeat gaizki har: ados nauk osoki, eta neure burua ez diat somatzen «super-giputz» horien artean. Aitzitik, beharbada donostiarra naizelako aitor-mota honetan ausartago izaki, behin eta berriz esana eta idatzia diat ez dela gure gipuzkera inundi ere euskalkirik jatorrena. Gauza berbera irakur dezakek «Hizkuntza eta Pentsakera» neure azken liburuan. Hau idatziz, bestalde, ezaguna den egia bat gogorazi eta birresan besterik ez diat egin.

Euskara idatziaren batasunaren arazo zail honetan, ordea, hautakizuna ez duk guretzako ximplea. Badituk, noski, hizkuntzaren beraren mailako arazoekin: gramatikari edo hiztegiari dagokienak, hitz batez. Baina badituk ere beste arazo batzuk, oso kontutan hartze-koak: arazoan soziologiakoak, esate baterako. Eta badituk, era berean eta azkenik, beste arazoan praktikakoak; alegia, errealtzia izanda, helburua iristekotan ahaztu behar ez diren arazo-alderdiak.

Mitxelena arazoan hauek guztiak gogotan hartuta, bide bat proposatu ziguk aditz-PARADIGMA dagokienez: gipuzkera osatuaren bidea. Hau eginez, R.M. Azkue jakintsuaren proposamenduari eutsi zio; eta geroztik ere, bere ideiez eta bere izkribuez antiz idazlek

hartu duen bideari. «Paradigma» hitza erabili diat; eta hitz horixe erabili behar, gipuzkeraren aditza bere horretan ez bait dut nih behin ere proposatu: «duket» eta «nateke» esali osoak gaitzea hukek hiri, esate baterako; edo «ikus/ikusi» eta «gerta/gertatu» diferentzia funtsezko nahastea. Biderdia bilatzen ari gaituk. Horra dena. Eta muturretatik urruntzeko joera hori ez duk nigan berria. Amets egitea erraza duk; baina euskal arazoa euskaldunekin eraman behar diagu aurrera.

Gauzak honetaz gero, aitor izukutu bat egingo diat. Hizkuntza-arazoan soilak kontutan hartuz gero, zantalza izpirik ez legokek ere uestez. Argi eta garbi esango diat: ZUBERERA proposatuko niáke nik neuk, zuberera osatua. Zertaz osatua, gainera? BIZKAIERAZ ETA BAXENABARRERAZ. Hauze duk egia hutsa.

Zergatik hori?

1) *Bokalee* dagokienez, zuberak bakarrik atxiki dik, ene uestez, gure bokale-egitura seikun jatorra. Zuberotarrek «gü» ziotek, baina «güre»; «húra», baina «gütü»ü, baina «zütüela».

2) *Kontsonantei* dagokienez, berriz, Zuberoko bakarrik berezeten dituk (pílin bat Baxenabarren ere bai) «s»-ren eta «z»-ren bi motak: soinuadunak (sonora, sonore) eta soinuabeak (sourde, sorda). Zu bereraren aberastasun honek, hain zuzen, betidanik kaltetu dik zuberotarren idazkera: Oihenartez orritzea aski; edo Gavel-ek 1960-an egin zuen proposamenduz (ikus «Gure Herria»), gaur arte, biderdi bila ari garelako, baztertera utzia. Zuberotarrek, jakina denez, leunkiago esaten dizkitek «kaserna, aisa, espusa, desiratzek» (soinuadunak); gainerako «s» soinuabeak baino. Era berean, leunkiago «plazera» eta «ezne», esate baterako, «zü, zütüü» eta «izan» hitzak baino. Bi soinu hauek gaitzea onartu ezina duk.

3) Antzina Euskal Herri guztian hedatua izan zen H «madarítua» (???) gaur arte ongi atxiki dik zubererak. Eta hemen ohar bat egin behar diat: zubererak «eri/erhi» bikotea berezeten dik; «zoriz/ohri»; «bati/bathi», «belar/belhar», «ote/otha», «oker/okher», «hala/ala/alaha», «gari/garhi», eta abar. Baiotan eta Arantzazun onartu den bidea biderditxo pratiko bat besterik ez duk izan. Hizkuntza solilar begirata, astakeria handi bat egin diagu; eta «senhar, alhaba, urhats, bekhatu, urthe, aphez», eta abar, atxiki behar genituzkeala gauza agiriá iruditzen zaizak. Zuberoko bezala, alegia, Kontsonante-egitura hirukonetatik egitura bikunetara igaroz (alegia, /k/ kh utzita, /g/ onartzerá, esate baterako) euskal egituratik erdal egiturara igaro gaituk; «comme par hasard» gure ondo erderek egitura... BIKUN horixe bait dute!

4) Zuberoko eta Baxenabarren gaindi ibili denak bazekik (entzun dituzkealako jakin: fonetika kontu hauek ez bait dira «teorikoak») euskalki hauetan badirela gaur *bokale nasalak*. «H» asko, bidena-bar esan dezadan, nasalak izan dituk euskaraz (gaur Zuberoko bezala) sudurra hetsiz esan beharrekoak. Nasalismo hauek galduz, «comme par hasard» berriz ere, erdal fonetika onartu diagu; nasalismo horiek Euskal Herri osoan ezagutu bait dira. Erroknariarrek, esate baterako, Zuberoko «har» hitza, «anr» esate ziaten (ikus C. Itzagirrenen «Erroknarioko euskal ondakin batzuk»); Zuberoko «ahizpa», «ainzpa»; eta Zuberoko «hür», «unr» Erroknarin. Aztarna horiek Bizkairaino heldu dituk: Zuberoko «sehi», Bizkalian «sein»; Z. «mihi», B. «min». Puntu honi buruz P. Madariagaren lekukotasuna oroitzaraziz, ohar ezin argitsuagoak eman dizkik Mitxelena (ikus «Fonética Histórica Vasca», 48). Bizkaiera zahararren «anztu» hitza (=ahaztu) bide beretik zetorrek.

5) Azenoari dagokienez, gero eta gauza segurago iruditzen zaizak euskal doinu zaharra gaur arte Zuberokoan (eta atzo arte Erroknarin) irau duena dela. Gero eta garbiago agertzen ari duk euskal azento toniko bat badagoela; eta

horren bila, bizkaiera lagun, zuberera dela kontseilaririk segurua. Etsenplu bat bakarrik emateko, «tár» atzikiak azentua zeramateki beti zubereraz (deklínabide osoan barrena, alegia). Hots, horixe duk Larramendik XVIII mendeko gipuzkeran arkitu zutua; eta horixe duk ere gaur Holmer-ek Bermeoko euskalkiari buruz egin duen azterketa ezin mamitsuagoan arkitu duena (ikus «Anuario del S.F.V.J. Urquijo, 1968, 118 orr.»). Gauza bera aipatua dik Mitxelena ere (ikus FHV, 420: «sufijo que era acentuado como hoy en ronc. y sul»). Eta aski dik irakurleak Ondarrabiko bati, esate baterako, «nungoa zara?» galditza; eta arropostuzat, hizkeraz ondarrabitarrik giputzak ez direlako nunnabi, hau entzungo dik: «ondarrabítarra». Hots, azento horri eutsi behar zioagu; beraz, berriz ere, zuberera gidari, eta bizkaiera lagun-tzaile.

6) Jakina denez ere, zubererak *diptongoak nasalizatuz* berezeten ditu (ikus FHV, 48); eskuarki erabiltzen dizkik «dateke» eta «düke» aditz-saiek; bizirik atxiki dizkik «votik» delakoak: «vilitz!» (=ahal baledi!) eta «vileza!» (=ahal balezal!); behar bezala erabiltzen dizkik *numeralak*: «hamar libru erosi dü» (bizkaitarrek, berriz ere, ongi esaten ditek hau: «amalau urte dauko»). Haritzelharrek ohar bikaínak dizkik honetaz Etxahun buruzko bere tesián, Larrasketen lana egokiro kritikatuko duelarik. Eta abar, eta abar.

Ez nauk harritzen, beraz, zuberotarren esatera famatuz: «gü gira úskaldunak, ezin manexak ziraie». Euzko aitor biter beha gienak gipuzkoarrok eta gainerakoek: zubereraren ondango gure euskalki guztiak, errotik erdaldundurik eta arrotzurik daudela; haren parean ez dutela benetan DEUSIK BALIO.

Hau gauza nabarmena duk, Andolin adiskide.

Eta R. Idiarte-ren «Bedatsian» kanta berri hungikgarrían kantariak «Xibeáz» hau diotelarik: «zapi probentzietan oso behezia», berezia ez baina EUSKALDUNA behar gienako irakurri. Eta eruduzat zuberera hartu, baxenabarreza eta bizkaieraz osatu.

Posible dea? Zuberoko euskalkiaren egoera ezagututa (Xalbador mintza begiku honetaz), ez dítugu laister «Kandido Izagirrenen hitzak berriz esan beharko: «Erroknarioko menditarteko zoragarri aiek eta gure ikuntza zarraren azkena ikusteak eman zizkiguten biotz-ikarax ez noa esatera...» baina Uhartandiko eskualdeez!

Zuberera ardatz... posible dea? Ez diat nih erantzungo. Egik heuk.

Nolanahi ere, berriz esan dezagun biok ongi agirián, EUSKALTZAINDIÁK zer erabakirik ere, huraxe onartuko dugula guk.

Artean, «bizi bedi gure Xiberua», eta besarkada bat

LARRESORO

# Arabar Industriariaren egoera

Lan honetan, Arabako ekonomí Industriariaren berri emateko, hemengo «Cámara de Comercio e Industria» delakoak agertu berri duen azken ikertzapenaren laburpena emango dizuet. Joan den urteko azken hiru hilái dagokien datok erabiliko ditut.

Arabar lantegi guztiak jarraituko produkzio-ahalmenetik ez-erabiltzako prozentajea ehuneko hogei eta biko izan da. Erakusle honen bidez indargabe eta ahuleriaren zantza garbi agertzen zaigu oraindik, nahiz abenduan hobegotze tipi bat erabiliko ditut.

Oñituru Izaten denez, ugazaba gehienek diote eskariaren ahuleria eta ezberdintasuna izan dela geldiune honen zioa. Kanpoko azoketan dagoen konkurrentziaren ondorioek eta langileekin zailtasunek berriz urrutitik jarraitzen dute.

Taldeka azterketa eginez, inber-sio-ondasunen enpresek gutxi dutela produkzio-ahalmenaren erabiltzea nabaritzen da. Alderantziz, bitarteko eta kontsumo-ondasunen-tzako erakusle honen eboluzioa positiboki bezala azaldu da. Alde honetatik bitarteko-ondasunen fabrikazioan egungo hobegotzeko jarraitzea diote prebisioek. Bitartean inbertsio eta kontsumo-ondasunen enpresek gaurko mailan iraungo dute.

Aldi berean, prezioen joera gorantz doa eta inflazio-jokabideak ekarriz. Honela, eta hitz guttan esateko, joan den urteko behar-tzako mugimendua bezatuta agertzen da, eta hau ekonomí-bizkor-tzerako lehen pausoa daiteke.

## INBERSIO-ONDASUNAK

Hiru hile hauetan, erakusleak hobegotuta irailaren azken egunetan, galduta da eta talde honen ez-erabiltzea ehunetik hogei eta amaikakoa izan da.

Eskariaren makaltasuna izan da, talde honen ugazaben uestez, erabiltzearren mugearren zioa. Baita erbestetik ekarrirako produktuen konkurrentzia ere.

Talde honen sektore guztiak nabaritu dute ez-erabiltzearren ugari-tasun hau, batez ere transporte-rakoto materialena. Honela produ-zioaren jokabideen prebisioak ha-ren gutituzerantz oharzten du, nahiz aldi luzeagorako aurrerapen tipu bat igartu. Taldeko salneurriek gogor-tzako jarraituko dute ersturen menpean.

## BITARTEKO-ONDASUNAK

Hile hauetan lehenengo tartean

baino produkzio-galga gogoak iri-txi dituzte talde honen enpresek. Ez-erabiltzearren maila % 22-tik % 17-ra gutitu da, hain zuzen, Eskariaren ahuleriak jarraitzen du eta alde batez finantzitzeko zailtasunak. Hala ta guztiz ere, talde honen sektore guztiak produkzio-mailen hobekuntza duki dute, bainan In-fra-erabiltzearren maila handiegi da sektore batzuetan, alegia, altzairu eta burnizko lantegietan.

## KONTSUMO-ONDASUNAK

Talde honek hobekuntza lortu du ere. Ez-erabiltzearren maila ehunetik amazapí batetan jarri da, eta lehengo epean % 21 bat izan zen.

Talde honetan, eskaeraren ahul-tasunarekin batera, inportantzi g-ehiago edukí ditutela esportazioen gu-titzeek eta langileekin gorabeherek ikus ditzakegu. Elikatze eta edaríen eskaria eta eungai eta kontsumo-erako metalezko artikuloko gorantz doaz, eta bitartean kontsumo-kim-koarenak lehengo orekan irauten dira.

EZKIBEL

**ARGIA**

Zuzenadaria:

**MIREN JONE AZURZA ARISTEGIETA**

Nafarroa-Kantauri eta Arago-ko Kaputxinoak argitaratzen (Kale Nagusia, 50-1. Barlaada-Pamplona).

Donostia: Okende, 22  
Tel. 42 66 66

**ARPIE SARIA:**

Barruan	300 pezeta
Korreo batasun-eko errietan	350 pezeta
Azterritako bes-te errietan	370 pezeta
Aldetz	Aurrez gal-deta
Salmetan (ale bakortza)	7 pezeta